



ITZEA URKIZU

Shole Martin > Naturaldia jardunaldietako antolatzailea

Gaur bertan hasiko da Naturaldia. Aurten, izadia bera maitatzen irakatsi digutenak omenduko dituzte, eta aktibismo horretan izen garrantzitsua da Jose Benito Ruiz argazkilariarena. Aranburu jauregian bere erakusketa izango da ikusgai.

«Hitz batean, sentimendua da argazki hauetan ikusten dena»

Itzea Urkizu

Shole Martin Naturaldia jardunaldietako antolatzaileetako bat da. Jose Benito Ruiz argazkilariaren *Naturaleza Humana* erakusketa prestatzen ari da, Aranburu jauregian. Maiatzaren 31 bitarte izango da ikusgai.

Naturaldia jardunaldiak nola hasiziren? Zenbagarrena da aurtengoa?

Aurtengoa 22. Naturaldia izango da. 90eko hamarkadaren bueltan hasi ginen, eta garai hartan Zumardiaren inguruan antolatzen genuen guztia. Dena den, guk aurrera jarraitzen dugu urterokoa

antolatuz, zenbakiei begiratu gabe; horrek ez nau gehiegi kezkatzen.

Urtero Tolosan izan al da Naturaldia?

Bai, bai, beti hala izan da. Kontua da, duela zazpi urte Gipuzkoako Foru Aldundiak interes handia erakutsi zuela guk antolaturiko jardunaldien inguruan, eta herrialdeko beste leku batzuetara zabaldu nahi izan zuen. Orduz geroztik itxiera ekitaldia ospatzen genuen, Chillida Leku museoan. Aurten, Chillida Leku itxita dagoenez, Aquarium-ean ospatuko dugu ekitaldia.

Gaur bertan hasiko den Naturaldian, natura maitatzen irakatsi diguten haiek omenduko dituzte, ezta?

Egiazki, aurtengo helburua gu guztiok natura maitatzeko eta hobeto ezagutzeko lan egin dutenak gogora ekartzea izan da. Dibulgazioaren bidez erakutsi digute natura zer den, eta hau dela eta, besteak beste, Felix Rodriguez de la Fuente omenduko dugu. Era berean, naturaren inguruko zine-

Natura maitatzeko urteetan lan egin dutenak ekarriko dituzte gogora

Tolosako naturaren istoriotxoak ere kontatuko dituzte hitzaldi batean

maren alde egin dutenak ere gogora ekarriko ditugu; Wanda Films edo *Nómadas del viento*ren making off-a. Bide beretik, National Geographic-ek, telebistaren bitartez, etxeko sofarraino ekarri dizkigu mundu osoko irudiak. National Geographic-eko Constanza Ceruti esploratzaileak pro-

grama oso indartsu bat dakar Naturaldira. Bestalde, argazkigintza, nolabait, oinarritzeko artea da naturarentzat, eta hemen Jose Benito Ruiz-en erakusketa izango dugu. Horretaz gain, XX. mende hasieraz geroztik, hainbat ekimenen bitartez natura maitatu eta sustatu duten tolosarrak ere hizpide izango ditugu.

Gaur egungo telebistak eskaintzen duena ikusita, jendeak aurretik aipatu dituzun guztien lana estimatzen duela uste al duzu?

Nik baietz pentsatu nahi dut. Ez dut telebista gehiegirik ikusten, baina National Geographic-edo BBC-ko dokumentalez hitz egitean, jende gehienak ezagutzen ditu. Ikusleak nolabait harapatu egiten dituela uste dut. Zapping-a egiten ari zarela, naturak eskaintako irudiak topa ditzakezu, eta horrek zenbait ikusleren arreta pizten duela uste dut, irudi oso indartsuak eskaintzen baitizkigute. Gai honekiko interes handirik ez duenik ere izango da, noski.

Eta erakusketari dagokionez, zer ikusiko du bertaraten denak?

Sentimendua, hitz batean. Emozioa, erakarpena, eta hausnarke-ta ere ikus daiteke. Argazki bako-

tzak gure eguneroko bizitzako eszena bat irudikatzen du. Dena den, ezin da hau azaldu, argazkiak ikusi gabe; irudiei begiratzean, hauetariko bakoitzak arreta ematen du zerbaitengatik. Argazkien indarrak, egiazkoak ez direla pentsarazten dizu. Irudietan naturako xehetasunak ikus daitezke, eta Benitok, akaso mendira edo hondartzara joaten garenean, hautematen ez ditugunak ikusarazten dizkigu bere kameraren bitartez.

Jose Benito Ruizek ibilbide zabala du.

Gauza mordoa esan daiteke gizon honi buruz. Hasteko, bere curriculum-ean dituen sari eta aipa-

Martin: «Besteok ikusten ez ditugun gauzak harrapatzen ditu kamerarekin»

Jose Benito Ruiz SOS Litoral kanpainan lanean ari da azken urte betean

men guztiak. Niri, bereziki aipagarria iruditzen zait astebururo internet bidez eskaintzen duen argazkigintza ikastaroa. 10.000 lagunek jarraitzen dute. Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zait naturako argazkigintzan, lanerako darabilen etika: denak ez du balio, eta dekalogo moduko bat dago. Jose Benito Ruizek zehatz-mehatz jarraitzen du hau. Gaur egun, estatuan lehena da aktibismoari dagokionez. SOS Litoral izeneko kanpainarekin dabil, eta nazioartean ezaguna egin da. Aurrez inork egin ez duen moduan defendatzen ari da Iberiar penintsula osoko kostaldea. Urte betez lekuz leku joan da gizakiaren erasoak aztertuz, eta argazkigintzaren bidez, babestu beharreko hainbat zonalde izendatu ditu. Lan hau aurten argitaratuko da ziurrenik.

Datorren asteartean eskainiko duen *Fotografía, arte y conservación* hitzaldian honen inguruan arituko al da?

Bai. Argazkigintzaren bidez aktibista izate hori kontatuko du. Bera bokazioz da aktibista, eta sentitzen duelako egiten du egiten duen lan guztia. Naturaldiak 22 urte hauetan hedadura handia izan du, eta arlo honetan oso garrantzitsuak diren ahotsak izan ditugu gurean. Honek, gerora jendeak Naturaldira etortzeko erakarpena sentitzea dakar. Benitoren kasuan, ez zen halakorik gertatu; deitu genionean, segituan eman zigun baiezkua, eta pozik etorriko zela esan zigun. Are gehiago, erakusketa asko ditu *Naturaleza Humana*z gain, eta Tolosan hauetariko batzuk erakustea gustatuko litzaidake; badiu kalean erakustekoak direnak, eta hori oso interesgarria iruditzen zait.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA